

7. Pazko igandea - Jainkoaren Igokundea (C)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Gorantz igo zen haien begi aurrean.

Eginak liburutik 1,1-11

Teofilo maitea: Neure lehen liburuan, hasieratik zerura jasoa izan zen eguna arte Jesusek egin eta irakatsi zuen guztiaz idatzi nuen. Zerura igo aurretik, Espiritu Santuaren eraginez azken aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu zitzairen bere heriotzaren ondoren eta bizirik zegoeneko frogaz asko eman zizkien, berrogei egunez bere burua ikustera emanez eta Jainkoaren erregetzaz hitz eginez.

Haiekin bazkaltzen ari zen batean, honela agindu zien: «Ez alde egin Jerusalemdik, zaudete nik Aitaren partetik egin dizuedan agintzariaren zain.

Joanek urez bataiatu zuen, baina zuek egun gutxi barru Espiritu Santuaz bataiatuak izango zarete».

Jesus zerura igo.

Orduan, Jesusekin bildurik zeudenek galdetu zioten:

– Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?

Jesusek erantzun zien:

– Aitak bakarrik du hori erabakitzeke ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalemen, Judea osoan, Samarian eta lurraren baztererraino.

Hau esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte. Oraindik zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizaseme azaldu zitzaizkien ondoan, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor zerura begira? Zuen ondotik zerura jasoa izan den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro».

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa: 46, 2-3. 6-7. 8-9.

R.

*Irrintzi artean igo da Jainkoa,
turuta-soinuz Jauna.*

Herri guztiok, egin txalo,
egin pozez oihu eta irrintzi Jainkoari.
Izugarria baita Jauna, Goi-goikoa,
mundu osoaren errege handia. R.

Irrintzi artean igo da Jainkoa,
turuta-soinuz Jauna.
Kanta Jainkoari, kanta!
Kanta gure erregeari, kanta! R.

Jainkoa mundu osoaren errege:
kanta hari trebeki!
Jainkoa nazioen errege da,
bere tronu santuan eseria dago. R.

BIGARREN IRAKURGAIA

Kristo zeruan bertan sartu zen.

San Pablo Apostoluak Hebertarrei egindako gutunetik 9, 24-28; 10, 19-23

Kristo ez zen sartu gizakiek egindako santutegian – egiazkoaren irudi besterik izango ez zen batean –, zeruan bertan baizik, orain Jainkoaren aurrean gure alde agertzeko; eta ez zen sartu behin eta berriz bere burua opari eskaintzeko, apaiz nagusia santutegian berea ez duen odolarekin urtean behin sartzen den bezala. Bestela, hil ere askotan hil behar izango zuen mundua mundu denetik gaur arte. Baina ez, Kristo behin bakarrik agertu da orain, azkenak diren garai hauetan, bere buruaren opariaz bekatua desegiteko. Eta gizon-emakumeek behin bakarrik hil behar dutela eta gero auzia izango dela erabakita dagoen bezala, halaxe Kristo ere: behin bakarrik izan zen oparizat eskainia guztien bekatuak desegiteko, eta gero bigarrenaz agertuko da, bekatuarekin zerikusirik gabe, beraren zain daudenak salbatzera.

Anai-arrebok, Jesu Kristoren odolari esker konfiantza dugu santutegian sartzeko, Jesusek errezelean barrena – hau da, bere gorputzean barrena – bide berri eta bizia ireki baitigu. Jesus apaiz handia Jainkoaren etxeko buru dugunez, hurbil gakizkion bihotz zintzoz eta sinesmen osoz, barrua bekatu-kontzientzia guztitik garbiturik eta gorputza ur garbiz txukundurik. Iraun dezagun sendo itxaropena aitortuz, leiala da eta hitza eman diguna.

Jaunak esana.

Edo:

Zeruan bere eskuinaldean eserarazi.

San Pablo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik 1, 17-23

Anai-arrebok, Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintza guztia dagokion Aitak, jakinduria eta goi-argia eman diezazkizuela, bera zer-nolakoa den sakonki ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera deitu zaituzten, zein zoragarria den fededunentzat ondare gisa prestatua duen aintza eta zein handia den sinestedunen alde erabiltzen duen bere ahalmena. Indar ahaltsu hori Kristorengan erakutsi zuen Jainkoak, hura hildakoen artetik piztu eta zeruan bere eskuinaldean eserarazi zuenean. Munduko aginte, botere, indar eta nagusigo ororen gainetik eta, mundu honetan ez ezik, datorren munduan ere aipagarri den edozeinen gainetik ezarri zuen. Dena jarri du Jainkoak Kristoren oinazpian, eta berau egin du denen gainetik Elizaren buru. Eliza haren gorputza da, unibertsoa erabat betetzen duen Kristok erabat betea.

Jaunak esana.

Aleluia Mt 28,19.20

Aleluia, aleluia.
Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle
- Dio Jauna -.
Eta ni zeuekin izango nauzue egunero
munduaren azkena arte. Aleluia.

EBANJELIOA

Bedeinkatzen zituen bitartean, haiengandik aldendu egin zen, eta zerura eraman zuten.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 46-53

Denbora hauetan, Jesusek ikasleei esan zien: «Idatzia zegoen Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hildakoen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, herri guztiei bihotz berritzeko hots egin behar zaiela, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete

honen guztiaren lekuko. Eta nik, neure Aitak agindutako dohaina, Espiritu Santua, bidaliko dizuet. Zuek egon hemen, hirian, Jainkoarengandiko indarraz jantzi zaitezten arte».

Ondoren, Betania aldera atera zituen Jesusek ikasleak, eta, eskuak altxaturik, bedeinkatu egin zituen. Bedeinkatzen zituen bitartean, haiengandik aldendu egin zen, eta zerura eraman zuten. Haiek, Jesus ahuspez gurtu ondoren, Jerusalemera itzuli ziren poz-pozik. Eta etengabe tenpluan egon ohi ziren Jainkoa goresten.

Jaunak esana

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>